Bizkaiko
Industri Ingeniarien
Elkargo Ofiziala

CiiB

Colegio Oficial de
Ingenieros Industriales
de Bizkaia

Bizkaiko
Industri Ingeniarien
Elkartea

AiiB

Asociación de
Ingenieros Industriales
de Bizkaia



# Urteko Memoria 2018

# AURKIBIDEA

Or.


1. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA . . . 4

2. ELKARGOKIDETZEA ETA KUOTAK . . . . . . 6

3. PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK . . . 9

4. AURKEZTUTAKO KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEK . . . . 10

5. KODE DEONTOLOGIKOA . . . . . . 10

6. GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK . . . . 10

7. KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA. . . . . . 10

8. ARLO PROFESIONALA . . . . . . . 10

   8.1. LAN PROFESIONALEN TRAMITAZIOA . . . . 10

   8.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PROFESIONALEKO ASEGURUA . . 12

   8.3. AHOLKULARITZA ETA LANBIDEAREN BABESA . . . . 13

   8.4. ARAUDIA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA . . . . 15

   8.5. ENPLEGURAKO JARDUERAK . . . . . . 15

   8.6. PRESTAKUNTZA JARDUERAK . . . . . . 18

9. GIZARTE EKINTZA . . . . . . . . 22

9.1. INGENIARITZAKO MUTUALITATEA. . . . . . 22

9.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA . . . . . . 22

9.3. ELKARTASUNA: IC-LI –Lankidetzarako Ingeniaritza . . . 23

9.4. EUSKAL KULTURA . . . . . . . . 24

9.5. BGAE . . . . . . . . . 24

9.6. DYNA ALDIZKARIA . . . . . . . 25

10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK . . . . 26

11. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK . . . . 28

ERANSKINAK

I – Prestakuntza Ekintzen Zerrenda

II – Kultura Eta Gizarte Ekintzako Xehetasuna

**CUENTAS DE RESULTADOS COMBINADAS CORRESPONDIENTES A LOS EJERCICIOS ANUALES TERMINADOS EL 31 DE DICIEMBRE DE 2018 Y 2017**

(Euros)

| | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| **EXCEDENTE DEL EJERCICIO:** | | |
| Ingresos de la actividad propia- | | |
| Cuotas de asociados y afiliados (Nota 20) | 283.816 | 279.515 |
| Aportaciones de usuarios (Nota 20) | 284.062 | 291.843 |
| Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio (Nota 16) | 6.887 | 8.008 |
| | 574.765 | 579.366 |
| Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil (Nota 20) | 407.685 | 405.611 |
| Otros ingresos de la actividad (Nota 8) | 162.441 | 165.263 |
| Gastos de personal- | | |
| Sueldos, salarios y asimilados | (373.058) | (377.342) |
| Cargas sociales (Nota 20) | (90.438) | (93.649) |
| | (463.496) | (470.991) |
| Otros gastos de la actividad- | | |
| Servicios exteriores | (533.831) | (530.731) |
| Tributos (Nota 18) | (48.672) | (39.845) |
| Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales (Nota 9) | (1.125) | (1.993) |
| | (583.628) | (572.569) |
| Amortización del inmovilizado (Notas 5, 6 y 7) | (116.958) | (121.373) |
| Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasadas al excedente del ejercicio (Nota 16) | 1.740 | 6.120 |
| **EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD** | **(17.451)** | **(8.573)** |
| Ingresos financieros- | | |
| De valores negociables y otros instrumentos financieros- | | |
| De terceros (Notas 9 y 11) | 226 | 53 |
| Gastos financieros- | | |
| Por deudas con terceros (Nota 9) | (4.639) | (3.602) |
| Variación de valor razonable en instrumentos financieros (Nota 9)- | | |
| Cartera de negociación y otros (Nota 11) | (147.954) | 4.962 |
| Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros- | | |
| Resultados por enajenación y otras (Notas 9 y 11) | 20.424 | 69.613 |
| **EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS** | **(131.943)** | **71.026** |
| **EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS** | **(149.394)** | **62.453** |
| Impuestos sobre beneficios (Nota 18) | - | - |
| **EXCEDENTE DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS** | **(149.394)** | **62.453** |
| **VARIACIÓN DE PATRIMONIO NETO RECONOCIDA EN EL EXCEDENTE DEL EJERCICIO** | **(149.394)** | **62.453** |
| **Reclasificaciones al excedente del ejercicio:** | | |
| Subvenciones recibidas (Nota 16) | (1.740) | (6.120) |
| **Variación de patrimonio neto por reclasificaciones al excedente del ejercicio** | **(1.740)** | **(6.120)** |
| **Variaciones del patrimonio neto por ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto** | **(1.740)** | **(6.120)** |
| **RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO** | **(151.134)** | **56.333** |

Las Notas 1 a 24 incluidas en las notas explicativas adjuntas forman parte integrante de la cuenta de resultados combinada correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2018.

## BALANCES COMBINADOS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2018 Y 2017

(Euros)

| ACTIVO | 31.12.2018 | 31.12.2017 |
|---|---|---|
| **ACTIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Inmovilizado intangible (Nota 5)-** | | |
| Aplicaciones informáticas | 1.600 | 6.725 |
| Inmovilizado intangible en curso | 76.635 | - |
| | **78.235** | **6.725** |
| **Inmovilizado material (Nota 6)-** | | |
| Terrenos y construcciones | 1.082.843 | 1.127.515 |
| Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material | 222.981 | 191.855 |
| | **1.305.824** | **1.319.370** |
| **Inversiones inmobiliarias (Nota 7)-** | | |
| Terrenos | 238.162 | 238.162 |
| Construcciones | 309.778 | 324.698 |
| | **547.940** | **562.860** |
| **Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo (Nota 10)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | **25.131** | **25.131** |
| **Inversiones financieras a largo plazo (Notas 9 y 11)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | **180** | **180** |
| **Total Activo No Corriente** | **1.957.310** | **1.914.266** |
| **ACTIVO CORRIENTE:** | | |
| **Usuarios y otros deudores de la actividad propia (Notas 9, 12 y 19)** | **2.810** | **3.074** |
| **Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar (Nota 9)-** | | |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 55.160 | 35.976 |
| Deudores varios (Nota 20) | 60.845 | 57.451 |
| Activos por impuesto corriente (Nota 18) | 39.715 | 43.966 |
| Otros créditos con las Administraciones Públicas (Nota 18) | 2.533 | 3.884 |
| | **158.253** | **141.277** |
| **Inversiones financieras a corto plazo (Notas 9 y 11)-** | | |
| Instrumentos de patrimonio | 1.761.774 | 1.060.445 |
| Otros activos financieros | 102.124 | 102.124 |
| | **1.863.898** | **1.162.569** |
| **Periodificaciones a corto plazo** | **4.412** | **7.749** |
| **Efectivo y otros activos líquidos equivalentes (Nota 14)-** | | |
| Tesorería | **201.951** | **1.139.259** |
| **Total Activo Corriente** | **2.231.324** | **2.453.928** |
| **TOTAL ACTIVO** | **4.188.634** | **4.368.194** |

| PATRIMONIO NETO Y PASIVO | 31.12.2018 | 31.12.2017 |
|---|---|---|
| **PATRIMONIO NETO:** | | |
| **Fondos propios (Nota 15)-** | | |
| Excedentes de ejercicios anteriores | 4.240.321 | 4.177.868 |
| Excedente del ejercicio | (149.394) | 62.453 |
| | **4.090.927** | **4.240.321** |
| **Subvenciones, donaciones y legados recibidos (Nota 16)** | **60** | **1.800** |
| **Total Patrimonio Neto** | **4.090.987** | **4.242.121** |
| **PASIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a largo plazo (Nota 17)-** | | |
| Otros pasivos financieros | **6.200** | **16.405** |
| **Total Pasivo No Corriente** | **6.200** | **16.405** |
| **PASIVO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a corto plazo (Nota 17)-** | | |
| Otros pasivos financieros (Nota 5) | 22.429 | - |
| **Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar (Nota 17)-** | | |
| Proveedores | 11.981 | 1.612 |
| Acreedores varios | 4.403 | 33.215 |
| Personal (remuneraciones pendientes de pago) | - | 13.333 |
| Otras deudas con las Administraciones Públicas (Nota 18) | 52.634 | 61.508 |
| | **69.018** | **109.668** |
| **Total Pasivo Corriente** | **91.447** | **109.668** |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | **4.188.634** | **4.368.194** |

Las Notas 1 a 24 incluidas en las notas explicativas adjuntas forman parte integrante del balance combinado al 31 de diciembre de 2018.

## 2. ELKARGOKIDETZEA ETA KUOTAK

Koadro honetan daude 2018. urtean ezarritako kuotak:

**ELKARGOKO 2018KO KUOTAK**

**2017/11/20ko Gobernu Batzordeak proposatuta eta 2017/11/27ko Batzar Nagusian onartuta**

| Profesionalak<br>Elkargokideak/ Atxikiak | Desk. | Hiruhileko kuota<br>Elkargoa+Elkartea | Kuota<br>Izena ematea (*) |
|---|---|---|---|
| **Arrunta**<br>Profesional aktiboak (>30 urte) | - | 29,00 € | 30,00 € |
| **Junior**<br>Profesional aktiboak (<30 urte) | % 40 | 17,40 € | 30,00 € |
| **65 urtetik gorakoak****<br>(Jarduera profesionalik gabe) | % 75 | 7,25 € | 30,00 € |
| **Langabeak**<br>(Hiru hilean behingo egiaztapena agiri ofizial bidez) | % 75 | 7,25 € | 15,00€ |
| **Baliaezintasuna****<br>(65 urtetik beherakoak, ≥ %65eko baliaezintasun maila,<br>baliaezintasun handia edo baliaezintasun absolutua dutenak) | % 75 | 7,25 € | 15,00€ |
| **Tituludun berriak**<br>(Titulua lortu ondorengo 1. urtea) | % 100 | 0,00 € | 0,00 € |
| **Ikasleak *** | % 100 | 0,00 € | 0,00€ |

* Izena emateko kuota bakarrik ordainduko da elkargoan lehen aldiz harpidetzean edo baja-aldi baten ondoren. Inongo kasutan ez da aplikatuko talde profesional batetik bestera igarotzean.

** Elkargoaren Erantzukizun Zibil Profesionalaren poliza egoera ez-aktibora pasatuko da, eta jardunari utzi arte egindako lanak estaliko ditu. (Ikusi azalpenak eta baldintzak). 65 urtetik gorakoek lanbidearen jarduna utzitakoan BIIEOri jakinarazi behar diote kuota murriztua aplikatzeko eta EZPko Poliza desaktibatzeko.

## 2018KO EMAITZAK

2018. urtean, ondoko elkargokide eta kide atxikien altak eta bajak eman dira:

| | 2018 | 2017 | Δ (%) |
|---|---|---|---|
| Altak | **86** | **70** | **% 22,9** |
| ▪ Elkargokideak | 53 | 46 | % 15,2 |
| ▪ Atxikiak | 16 | 21 | % -23,8 |
| ▪ Ikasleak | 17 | 3 | % 466,7 |
| Bajak | **139** | **157** | **% -11,5** |
| ▪ Elkargokideak | 120 | 147 | % -18,4 |
| ▪ Atxikiak | 7 | 9 | % -22,2 |
| ▪ Ikasleak | 12 | 1 | % 1100 |
| Urtetik urterako aldaketa | **-53** | **-87** | |
| BIIEOko kideak guztira | **3.251** | **3.304** | **% -1,2** |

## ALTAK

**2018an erregistratutako alten osaera eta egiturari** dagokionez, honako datuak aurkezten dira:









## KOLEKTIBOA

Grafiko hauek kolektiboaren osaera erakusten dute, adin eta sexuaren arabera:




| | <25 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 60-64 | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-90 | >90 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | 5 | 17 | 57 | 63 | 115 | 55 | 15 | 12 | 7 | 1 | 1 | 1 | | 1 | |
| H | 10 | 92 | 132 | 187 | 394 | 345 | 239 | 306 | 187 | 247 | 315 | 239 | 136 | 67 | 19 |







## 3. PROZEDURA INFORMATZAILEAK ETA ZIGORTZAILEAK

2018an Elkargoko kide bati ere ez zaio informazio edo zehapen prozedurarik ireki.

# 4. KONTSUMITZAILE EDO ERABILTZAILEEK AURKEZTUTAKO KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

2018an ez da erabiltzaileen kexa ez erreklamaziorik jaso hartarako ezarritako mekanismoen bitartez.

# 5. KODE DEONTOLOGIKOA

Elkargoak ez du inolako aldaketarik egin aurten bere Kode Deontologikoan.

# 6. GOBERNU BATZORDEA: BATERAEZINTASUNAK

Gobernu Batzordeko kideak ez daude bateraezintasun egoeran eta ez da interes-gatazkarik egon haien jardueran.

# 7. KALITATE ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUA

2017an Kalitatearen eta Ingurumenaren Kudeaketa Sistemetako Ziurtagiriak berrituta, UNE-EN ISO 9001:2015 eta UNE-EN ISO 14001:2015 arauen araberakoak, 2018an jarraipeneko kanpo ikuskaritza gainditu zen.

# 8. ARLO PROFESIONALA

## 8.1. LAN PROFESIONALEN TRAMITAZIOA

| Ikus-onespena | Erregistroa | Dokumentuen kontrola | Ziurtapenak eta Egiaztapenak |
|---|---|---|---|

Lan profesionalak tramitatzeko zerbitzuaren bidez, BIIEOk honako berme hauek eskaintzen dizkie elkargokide, kontsumitzaile eta erabiltzaileei:

- ✓ **Egiaztagiri Profesionala:** Gaikuntza eta Trebetasun Profesionala.
- ✓ Dokumentazioaren zuzentasuna eta osotasun formala **berrikustea.**
- ✓ Dokumentazioa **erregistratzea eta zaintzea.**
- ✓ **Erantzukizun Zibil Profesionalaren aseguramendua.**
- ✓ **Babesa: Elkargoaren Erantzukizun Zibil Subsidiarioa.**
- ✓ **Lan esperientziaren ziurtapena.**

## 2018ko EMAITZAK

2018an, hazkunde txiki bat erregistratu da, bai kopuruan, baita sarreretan ere, 2017arekin alderatuta.

Proiektu eta Obren Burutze Aurrekontuen zenbatekoari dagokionez, zifra ia-ia berdina da.

| | 2018 | 2017 | Δ (% ) |
|---|---|---|---|
| Tramitazio kop. | 1.825 | 1.747 | % 4,46 |
| Diru-sarrerak | 407.685 € | 405.611 € | % 0,5 |
| Gauzatze Materialaren aurreikuspena | 392 M€ | 389 M€ | % 0,77 |



## ESTATISTIKAK ETA ADIERAZLEAK

Grafiko hauek tramitazio mota ezberdinek jarduerari egindako ekarpena eta Arlo Profesionaleko diru-sarrerak erakusten dituzte.




## 8.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PROFESIONALEKO ASEGURUA

**18/1997 Legearen 12. artikulua betez**, BIIEOk kontrolatu behar du elkargoaren kontrolaren mende dauden profesionalen jarduera guztietan derrigorrezko aseguratzea betetzen dela.

Era berean, elkargoaren betebeharra da bertako kideei aseguratzeko behar dituen bideak erraztea.

Horrela, Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoak hartzaile gisa izenpetu du **Poliza Kolektibo** bat, elkargokide guztiak babesten dituena.

BIIEOaren **Erantzukizun Zibil Profesionaleko Poliza Kolektiboa** Industria Ingeniarien 10 Elkargok negoziatu dute, guztira 12.830 Ingeniari Elkargokide batzen dituztenak, helburu hauek lortzera bidean:

- Jarduera librean dabiltzan profesionalei eta ingeniaritza txikiei **aseguru-merkatura** sartzeko baldintzak hobetzea.
- Arrazoi ezberdinengatik (langabezia, enpresa aldaketa, itxiera...) enpresaren EZPren estaldura galdu duten profesionalei **babesa bermatzea.**

- **Enpresaren polizak osatzea** eta elkargokideak babestea aipatutako poliza horiek haien interesetarako izan ditzaketen akatsetatik (oinordekoen estaldurak, inhabilitazio profesionala, aldi baterako eremua, eremu geografikoa...)
- **Segurtasuna bermatzea jardun profesionala utzi eta gero**, oraindik indarrean egon daitezkeen erantzukizunengatik.

Elkargoaren polizak eskaintzen dituen estaldurak laburtzen dituzte datu hauek:

**2018ko Poliza**

**Jardunean dauden 2.350 elkargokide aseguratu**

**900 elkargokide babestu ez aktibo**

**39.663 € oinarrizko estaldura kontratatzera bideratuta**

**10.557 € zabalkuntzak diruz laguntzera bideratuta**

**4.000.000 € / ezbeharrera arteko estaldurak**

## 8.3. AHOLKULARITZA ETA LANBIDEAREN BABESA



Gure elkargokideek, baita partikularrek, enpresek eta administrazioek ere, gehien eskatzen duten zerbitzuetako bat da era ezberdinetako kontsulten ebazpena.

Gehien kontsultatzen diren gaiak zerrendatu ditugu segidan:

## Kontsulta Gaiak

1. Gaitasun profesionalak
2. Jarduera profesionala (eskakizunak, bateragarritasuna, eredu juridikoak...)
3. Araudiak eta Legeak
4. Erantzukizun Zibil Profesionala
5. Aholkularitza teknikoa (proiektuen edukia eta egitura, txostenak eta beste dokumentu batzuk, izapide administratiboak eta beste batzuk)
6. Ikus-onespenak eta beste tramitazio batzuk (prozedura, ikus-onespen elektronikoa...)
7. Elkargoko Zerbitzuak (Elkargokide txanda, Profesionalen direktorioa, Lan poltsa...)
8. Lan eta Lanbide Orientabidea

Beharrezkoa bada, kontsultak elkargoko **Zerbitzu Juridikoetara** bideratzen dira, eta dohainik konpetentzia profesional eta lan arloetako aholkularitza osatzen dute.



**Eskumenak Babesteko** arloan, 2018ko ekintzak hurrengo gaietan oinarritu dira:

I. **Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak** (ITEak edota IEEak): Gure legedi autonomikoak murrizketa esplizituirik jasotzen ez badu ere, lanean jarraitzen ari gara ingeniarien eskumena aitortzeko, jarduteko askatasunaren irizpidearekin bat etorrita, LGUMren babesean eta Lehiakortasunaren Euskal Agintaritzak eta Merkatuen eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalak behin eta berriz babestutako irizpideari jarraituta.
Urriaren 31n, Audientzia Nazionalak onetsi egin zuen osorik CNMC erakundeak 2018ko abuztuaren 8ko eta urriaren 5eko ebazpenen aurka jarritako errekurtsoa. Horien bidez, industria ingeniariei eraikinen ikuskaritza teknikoen (EIT) gaineko txostenak egiteko eskumena ukatzen zitzaien. Epaiak azpimarratzen du txosten horiek egiteko eskumena ez dela Arkitekto eta Arkitekto Teknikoena soilik, eta Merkatuaren Batasuna Bermatzeari eta jarduera erreserbari buruzko Legea dauka oinarri, Espainia osoan aplikagarria. Epai garrantzitsua da, aurreko beste epai batzuekin eta CNMC erakundeak horren inguruan eduki dituen jarduerekin bat egiten duena.
Aldeko bigarren epaia da, horregatik da hain garrantzitsua bidean dauden prozedura eta etorkizuneko inpugnazioetarako.

II. **Enplegu eskaintza publikoa:** 2018an, BFAren enplegu eskaintza publikoa aztertu eta deialdi horren aurkako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zen, gure lanbiderako aitortutako konpetentzia tradizional bat defendatzeko, emaitza positiboarekin.

## 8.4. ARAUDIA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Elkargokideak informazioa ematen jarraitzen du, webgunearen bitartez, jarduneko elkargokideei dagozkien lege arloko berrikuntzei buruz, honako zerbitzuak ere eskainita:

**UNE arauei buruzko online kontsulta-puntua**

Doakoa da eta gure bulegoetako kontsulta-aretoetan dago eskuragarri.

**Legistec- Legegintzako Datu Basea**

| | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| Sarrerak | 535 | 493 | 623 |

Erabiltzaileak beharrezko gakoak ditu eta aplikazioak aukera ematen dio **elkargokide bakoitzari espezializazio profesionalaren** eta **lanbidearen arlo espezifikoaren arabera pertsonalizatzeko**. Informazio zuzen eta pertsonalizatua jaso dezakete eta erabiltzailearen datu-base partikular bat konfiguratu.

## 8.5. ENPLEGURAKO JARDUERAK

Elkargokideen enplegagarritasuna eta sustapen profesionala bultzatze aldera, BIIEOk elkargokideen esku jarri ditu lan-poltsa, **elkargokidearen txanda eta profesionalen direktorioa zerbitzuak.**

Zerbitzu horien bitartez, guztira **1.473 elkargokidek eta atxikitako kidek** jaso dute enplegu eta kontratazio aukerak dauden zerbitzuen bitartez:

| Lan-poltsa | Ingeniarien txanda | Profesionalen Direktorioa |
|---|---|---|
| 1.363 | 38 | 72 |

## EMAITZAK

Lan-eskaintzek eta elkargokide txandan jasotako eskariek 2008tik izandako bilakaera azaltzen da grafikoan, eta 2014an hasitako joera-aldaketa islatzen da. Izan ere, Lan merkatua nabarmen berreskuratu da industria ingeniaritzaren alorrean.

| | 2018 | 2017 | Aldea |
|---|---|---|---|
| **Jasotako eskaerak** | 332 | 430 | % -23 |
| **Elkargokide txanda** | 23 | 29 | % -21 |
| **Lan eskaintzak** | 309 | 401 | % -23 |
| **Enpresak** | 119 | 111 | % 7 |
| **Jasotako CVak** | 997 | 1.135 | % -12 |




## INGENIARIEN TXANDA eta PROFESIONALEN DIREKTORIOA

**Ingeniari txanda** ezartzen da **jardun libreko edo ingeniaritza sozietateetako kontratazioa ahalbidetzeko**, Elkargora kontsultak egiten dituzten herritarrei proiektu bat egiteko, txosten bat eskatzeko, peritatze bat, egiaztagiri bat edo edozein ingeniaritza zerbitzu puntual eskatzeko.

Halaber, zerbitzu honetatik **peritu judizialen zerrendak** egiten dira eta uneoro bidaltzen dira Eusko Jaurlaritzara Prozedura Judizialetan parte hartzeko.

| 2018 | Ingeniarien txanda | Profesionalen Direktorioa |
|---|---|---|
| Izena eman duten profesionalak | 38 | 75 |
| Espezialitateak | 30 | |
| Webguneko Eskabideak eta Kontsultak | 23 | 1.007 |

**BIIEOren webean argitaratutako zerrenden bidez**, kontsumitzaile eta erabiltzaileek sarbidea dute **Profesionalen Direktorioan** izen emanda dauden ingeniarien harreman profesionaleko datuetara.

## INGENIARI LANGABETUAK

Langabe kopurua **kolektibo osoaren % 1,13tik** behera mantentzen da.

Haiei guztiei **Elkargoak % 75eko beherapena ezartzen die elkargokidetze-kuotan**, eta **% 50eko beherapena BIIEOk antolatutako prestakuntza-ikastaroen tarifetan**.

| 2018ko datuak | |
|---|---|
| **37** | **ingeniari langabe** |
| **1.716 €** | **diru-laguntzetan** |

## JARDUERA LIBREA ETA LAAB-REN MUTUALITATE ALTERNATIBOA

Ingeniari elkargokideak **beren konturako ingeniari gisa aritzeko**, elkargoko industria ingeniari guztiek eskuragarri duten **LAABren (Langile Autonomoen Araubide Berezia) Mutualitate Alternatiboaren** aukerak abantaila handiak eskaintzen dizkie, besteak beste:

- ✓ Jarduera Librea besteen konturako jarduerarekin edo erretiroarekin bateratzeko aukera ematen die, Gizarte Segurantzan **kotizazioak handitu gabe** eta prestazioko eskubideak galdu gabe.
- ✓ **Kapitalizazio indibidualeko** sistemaren aldeko aukera egitea LAABko kuotak baino kuota txikiagoekin, eta LAABn sartzeko aukerarekin nahi duten unean.

- **AMIC**
- **La Mutua de Los Ingenieros del Colegio de Cataluña**

# 8.6. PRESTAKUNTZA JARDUERAK




2018ko prestakuntza-jardueren emaitzak mantendu egin dira 2017 urtearekin alderatuta, baina gure Prestakuntza Programa osatzen duten jarduera kopurua handitu da:

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Jarduerak** | **43** | **45** | **39** | **52** | **41** | **66** | **74** |
| **1. Ikastaroak** | 19 | 16 | 18 | 23 | 15 | 27 | 31 |
| **2. Hitzaldiak** | 14 | 14 | 12 | 15 | 17 | 16 | 15 |
| **3. Kanpoko prestakuntza** | 10 | 15 | 9 | 14 | 9 | 23 | 28 |
| **Asistentzia** | **682** | **769** | **798** | **1116** | **946** | **1135** | **1025** |
| **1. Ikastaroak** | 301 | 340 | 376 | 336 | 209 | 279 | 317 |
| **2. Hitzaldiak** | 381 | 429 | 422 | 481 | 641 | 577 | 293 |
| **3. Kanpoko prestakuntza** | Daturik gabe | Daturik gabe | Daturik gabe | 299 | 96 | 279 | 415 |
| **Diru-sarrerak** | **30.504 €** | **70.548 €** | **81.029 €** | **113.124 €** | **88.051 €** | **106.406 €** | **100.973 €** |

BIIEOren prestakuntza programa eskaintza zabala eraikitzeko egituratzen da, hala **Prestakuntza Teknikoan** (Ingeniaritza Mekanikoa, Elektrikoa, Prozesuetakoa, Eraikuntza eta Eraikinak, Energia, Ingurumena, eta abar), nola **Kudeaketan eta Zeharkako Gaitasunetan** (Plangintza eta Kudeaketa, Pertsonak, Estrategia eta Berrikuntza, Ekintzailetza, eta abar), ingeniarien garapen profesionala ahalbidetuko duena egungo merkatuan eskatzen diren beharretara egokituta.

Halaber, prestakuntza-eskaintza erreferentziazko entitateekin egindako **hitzarmenen eta akordioen** bidez osatzen da, besteak beste:

| | | | |
|---|---|---|---|
| TUV SUD | EUSKALIT | MONDRAGON UNIBERTSITATEA | IESE |

## LAGUNTZAK

Aurreko ataletan aurreratu dugun moduan, Teknologia eta Prestakuntza Batzordeak interes eta kezka handia du langabezia egoeran dauden kideak laguntzeko.

Kolektibo honi bideratutako laguntza gisa **% 50eko deskontua eskaintzen da matrikulan**, BIIEOk antolatutako eta eskainitako ikastaroak egiteko eta gure kolektiboaren garapen profesionala optimizatzen duten doako tailerrak antolatzeko.

## IKASTAROAK

Matrikula duten ikastaroetako prestakuntza programaren barruan, bereziki aipatu behar ditugu honako ikastaroak: Hodien Diseinu eta Kalkuluari buruzko zikloa, PMP ikastaroaren 4. Edizioa eta proiektuaren kudeaketari buruzko prestakuntza, baita ingeniaritza elektrikoari buruzko ikastaroa ere. Bertaratze-tasa handia izan da.

Gainera, BIIEOk **Formación in Company** motako jarduerak antolatzen ditu, hala eskatzen duten enpresentzat.



**Programatutako ikastaroak: 31**

**Emandako ikastaroak: 22**

**Inskripzioak: 317**

**Balorazio orokorra: 8,6**

## HITZALDIAK ETA JARDUNALDIAK

Asistentzia askeko Hitzaldiek eta Jardunaldiek elkargokideen arteko harremanak sustatzen laguntzen dute gaur egungo gaien inguruan, betiere eztabaida biziz jarraituta. 2018an, bereziki aipatu behar da **"BIIEO Topaketa Teknologikoak" izeneko zikloa**, aurreko ekitaldian hasitakoa, eta organismo handi batzuen lankidetza, hala nola Innobasque, SPRI eta Energia Klusterra, gure jardueretako batzuetan protagonista izan direnak.



**Jardunaldi programatuak:** 15

**Egindako jardunaldiak:** 15

**Inskripzioak:** 293

**Balorazio orokorra:** 8,7

## KANPOKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak berak antolatutakoen osagarri gisa, gero eta Prestakuntza Entitate eta Industria Enpresa gehiagok eskatzen dituzte lokalak Elkargoan beren ikastaroak emateko edo beren produktuen aurkezpen teknikoak egiteko.

BIIEO, bestalde, lanean ari da erakunde eta entitateekin loturak estutzeko. Ondorioz, jarduera gehiago egin dira, eta horri eskera, Elkargoaren figura indartu eta gure kideen ezagutza eta esperientzia handitu dituzte.



**Egitaraua:** 28

**Emandakoak:** 24

**Inskripzioak:** 415

**Balorazioa:** 8,3

## 2018KO PRESTAKUNTZA BEHARRIZANEI BURUZKO INKESTA

Gure kolektiboaren egungo prestakuntza-eskaera ezagutzeko beharraz jakitun, Teknologia eta Prestakuntza Arloak **prestakuntza beharrizanen inguruko inkesta** bat burutu zuen, zerbitzu hori erabiltzen duten pertsonei zuzenduta. Jasotako erantzunak aztertuta, 2019an honako neurriak hartzea pentsatu dugu, arreta hobetu eta BIIEOn konfiantza jarri duten pertsonen beharrizanei erantzuteko.

- Lanegunarekin bateragarriagoak diren ordutegiak ezartzea.
- On line prestakuntza eta prestakuntza mistoa integratzea programan.
- Programazioan beste tematika batzuk ere sartzea.
- Beste prestakuntza jarduera batzuk barne hartzea, hala nola ATEX, PMP Hodiak. Izan ere, eskaera handia dago.
- Formación in company motako programen garapena.
- Zuzendaritza eta Kudeaketa arloko prestakuntza eskaintza, eta Industria 4.0 arlokoa sendotzea.

Kolektiboaren parte-hartzeari esker, egiaztatu dugu Teknologia eta Prestakuntza arloak **emandako zerbitzuen gaineko asebetetze-maila osoa altua** dela, eta hori mantentzen eta handitzen saiatuko gara.

## TOPALEKUAK

### TXOKOA

Era berean, elkargokideek gero eta gehiagotan erabiltzen dute erabilera anitzeko eremua, **TXOKOA**, eta 2016ra arte abesbatza eta batzordeetarako erreserbatuta zeuden erabilerak zabaldu dira.

Zehazki, 2018an erreserba kopurua handitu egin da; 42 erreserba egin dira eta **550 pertsonak** erabili dute. Eremu hori networking-eko topaketak egiteko lekua da, egindako jardunaldi eta aurkezpenei lotuta.

### ELKARGUNEA

**4. solairuan** "**INGENIARI TXIKIAK- PEQUEÑOS INGENIEROS**" proiektua babesteko erabiliko da.

Gure espazioa laborategi moduko bat izan da; **9 eta 12 urte bitarteko gaztez** osatutako 2 talde eratu dira eta **STEAM** arloko bokazioak esnarazteko helburua daukate (taldeetako bat neskatoz osatua dago).





# 9. GIZARTE EKINTZA

## 9.1. INGENIARITZAKO MUTUALITATEA

AMICekin sinatuta dagoen aseguruaren produktuak indarrean eta eskuragarri jarraitzen du gure elkargokideentzat. 2002an onartutako eraldaketa garrantzitsuaren ondoren, Mutualitateak heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioa soilik gorde du, eta horrek gure kolektiboaren barnean dauden aurreikuspen xedeak bete egiten ditu.

2018an, mantendu egin da ezbeharren tasa aurreko urtearekin konparatuta; azken 5 urteak kontuan hartuz gero, egonkortuta dago talde honi dagokionez.

| 2018 | Bizkaia | Guztira | % |
|---|---|---|---|
| **Mutualistak Bizkaia** | **1.068** | **8.332** | **% 13** |
| **Altak – Bajak** | -21 | -247 | **% 9** |
| **Primak** | **102.460 €** | **761.460 €** | **% 13** |
| **Ezbeharrak** | **1** | **14** | **% 7** |
| **Prestazioak ezbeharreko** | **35.912 €** | **204.708 €** | **% 18** |

## 9.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA

### BIZKAIKO INGENIARIEN MUSIKA ELKARTEA.

2018an zehar, Bizkaiko Ingeniarien Abesbatzak **10** Kontzertu eman ditu guztira. Bere web orrialdea du: http://www.coroingenierosbizkaia.com/, egiten diren jarduerei zabalkundea emateko, eta musika zaletasuna duten kideak eta horien senideak erakartzeko xedez.

### BIDAIAK

Bidaia labur bat egin da **Esloveniara**. **102 pertsonak** parte hartu dute, bi irteeratan banatuta. Parte-hartzaileak oso gustura geratu dira.

**KOLONBIARA** bidaia egin da, eta **53 lagunek** hartu dute parte. Bi irteeratan banatu ziren, eta bertako hiri nagusiak eta herrialde zoragarri horretako kultura ezagutu dituzte. Batzordeak bertaratuen iritziak jaso ditu.

## BURDINOLA KLUBA

Hiru asterik behin txangoak egiten jarraitzen du Klubak. 2018an **11 txango** egin ziren eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Burgos eta Errioxako leku interesgarriak bisitatu zituzten. Taldea **53 elkargokidek** eta **153 kidek** osatzen dute, eta interesdun guztiei gonbita egiten die haien irteeretara joateko eta izpiritu berarekin gozatzeko.

## 9.3. ELKARTASUNA: IC-LI –Lankidetzarako Ingeniaritza

**ICLI** elkarteak bere ibilbideari jarraitu dio beste urte batez, Batzordearekin bat egiten jarraitzen duten kideei esker.

**2018ko** jardueraren inguruko ikuspegi oroko bat eman nahi dizuegu. Horrela izanik, proiektuen ikuspegitik, esan dezakegu urtea **oso arrakastatsua** izan dela; izan ere, lortutako diru-laguntzen ratioa hobetu egun da, aurreko ekitaldiarekiko % 70etik gertuko portzentaje batean.

Zifratan, **269.543€** lortu ziren laguntzetan. Zenbakitan, **16 proiektu** aurkeztu ziren, arrakasta handiarekin, bereziki erakunde txikietan; hala ere, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere babesa eman digute.

Erakunde publikoez gain, enpresa Fundazio batzuetan finantzaketa aurkitu dugu. Bide hori lantzen jarraitu nahi dugu, eta gure gizarte oinarriaren ekarpen partikularretan, neurri txikiagoan.

Esku-hartze guztiak Afrikan kontzentratu dira, batez ere, eta Hego Amerikan eta Indian. Azken herrialde hori gure erakundean kontsolidatzen da.

Tokiko mailan, 2018an martxan jarri da haurtzaroa babesteko Sestaoko **Artizar Zentroa**. Bertan gure ekarpena egin dugu finantzaketa bilatuz, baimenak izapidetuz, instalazio berrien diseinu eta obra eta zuzendaritzaren bidez.

Sektoreka, **hezkuntzak** garrantzia handia dauka oraindik ere gure proiektu-zorroan, **nekazaritza garapena** ahaztu gabe, hezkuntza osagai garrantzitsuarekin, eta **emakumeak** esku-hartze guztien inguruan daukan presentzia. **Sentsibilizazio** jarduera gero eta funtsezkoagoa da ICLI elkartearen funtzionamenduan. Hitzaldiak antolatzen dira eta azoketan parte hartzen da, beste gauza batzuen artean.

Hurrengo urterako helburu moduan **ingeniarien kolektiboaren presentzia handitzea** planteatu da, BIIEOren ekimen berriekin lan eginez, eta beste garapen erakunde batzuei laguntza emateko aukerarekin.

Zorroztasun eta gardentasunaren aldeko apustua mantendu da, **urteko kontu-ikuskaritzaren** eta komunikazio irekiaren bidez. **Webgune berriaren bidez** hobetuko da. **.**

## 9.4. EUSKAL KULTURA

1976. urtetik, EKB (Euskal Kultur Batzordea) euskararen aldeko ekitaldiak antolatzeaz arduratzen da, eta horretarako eginkizunak kudeatzen ditu.

**Hizkuntza Kudeaketa arloko Bikain Kalitate Ziurtagiria** lortu ostean, eta ebaluazioaren amaierako txostenean oinarrituta, hurrengo urratsak finkatu ditugu datozen urteotan ziurtagiriaren hurrengo maila lortzeko, eta horrela oinarrizko mailatik zilarrezko mailara igarotzeko.2018ko abenduan, BIIEOk **Bai Euskarari "Zerbitzua Euskaraz" Ziurtagiria** berritu du, dagokion ebaluazioaren ostean.

2018an **euskarazko kontakizunen lehiaketaren XXII. Edizioa** izan da. Bi izan dira sarituak. Batetik, Maddi Ibarra Arriolabengoa, "**Zapatak lotuta**" kontakizunagatik; bestetik, Gorka Azkarate Torner, "**Errepide bazterrekoak**" izeneko lanarekin.

Euskara Batzordeak zenbait ekitalditan hartu du parte, esaterako, Bilbo Zaharra Euskaltegiak antolatutako **Klasikoen XI. Irakurraldi Jarraituan Arriaga Antzokian**. 2018an Txomin Agirre idazlearen "Kresala" lana irakurri da.

Aurten **"coiib.eus"** domeinua lortu da, ".es"-etik domeinu horretarako migrazioa egiteko.

Elkargoko lankideek euskara prestakuntza jasotzen jarraitu dute.

Erakundeei hiru **diru-laguntza eskaera** egin zaizkie: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Hiru erakundeek eman digute laguntza, euskara plana garatzeko.

## 9.5. BGAE

Araba eta Gipuzkoako Elkargoekin batera daukagun BGAEak, lurrunkortasun handiko urte baten ostean, honako urteko errentagarritasuna aurkeztu du 2018. urtean:

| | Errentagarritasuna | Bazkide kopuru osoa | Prestazioak |
|---|---|---|---|
| **Ingeplan** | % -4,88 | 660 | 162.278 |
| **Planinge** | % -6,27 | 806 | 66.412 |
| **Ingeplan Monetario** | % -0,82 | 30 | 3.772 |

Erakundearen gobernantzaren gaineko prozedurak ezartzen jarraitzen dugu, BBVA ASSET MANAGEMENT SA erakundearen babesarekin.

## 9.6. DYNA ALDIZKARIA

| | 2018 |
|---|---|
| **Harpidetzak Paperezko Edizioa Bizkaian** | **1.809** |
| Altak | *7* |
| Bajak | *107* |
| **Kuotak Paperezko Edizioan** | **56.084 €** |
| **Elkargoko Harpidetza Dyna Digitalera** | **14.583 €** |

2018a aurrekontuan aurreikusitakoa baino hobeto doa. Emaitzen kontuak urte bukaeran 9.665 €-ko etekina izan du (zergen ostean).

Emaitza positibo honek aurrekontuan aurreikusitakoa hobetu du eta arrazoia zera da: erakundeen harpidetzen partiden joera ona, egileen ordainketa eta inprimatutakoaren harpidetzak mantentzea. 3 partida horiek saldo negatiboa konpentsatu dute, publizitate eta postetxeko aurrekontuari dagokionez. Egileen diru-sarreren aurrekontua nabarmen hobetu da, artikulu bakoitzeko plus bat ordaintzen zuen eraikuntza ale bereziagatik.

Aurten burututako proiektu eta hobekuntza batzuk honakoak izan dira:

- Barne egitura egokitu egin da, Datuen Babeserako Europako Araudiaren arabera.
- 2018ko martxoan egindako ale bereziak:
  - ✓ 2018ko martxoa: Eraikuntza.
  - ✓ 2018ko azaroa: Industria 4.0.
- Online ebaluazioa jarri da martxan, baina oraindik ere hobekuntza eta aldaketa fasean dago. Espero dezagun gure erabiltzaileen webguneko denbora hobetzea. Hori da Google Analytics tresnaren bidez neurtutako parametroetako bat.
- Gure presidenteak FAIIEn egindako DYNA Argitalpenen aurkezpen baten ondorioz, pentsatu genuen beharrezkoa zela inkesta bat egitea, gure bazkide eta elkargokideek argitalpenaren gainean duten iritzia jakiteko. Behin bukatuta, emaitzen analisitik honako ondorioak lortu dira:
  - ✓ Inkesta egin dutenek DYNAren balorazio orokor ona.
  - ✓ Madril, Katalunia, Valentzia eta Murtziaren parte-hartzerik ez.
  - ✓ Inkestari 30.000 erantzule potentzialetatik, soilik 217k erantzun dute.
  - ✓ % 15ek soilik ezagutzen dituzten 3 aldizkari digital berriak.
- Aldizkari digitalen indexazio-prozesuarekin jarraitzen dugu, eta, orain arte, honako datu-baseetan sartu dira:
  - ✓ DYNAES: Google Scholar, MIAR, Catálogo 2.0 Latindex , Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal Whitelist

- ✓ DYNAMN: Google Scholar, MIAR, ERIH PLUS, Catálogo 2.0 Latindex, Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal Whitelist
- ✓ DYNANT: Google Scholar, MIAR, Catálogo 2.0 Latindex , Dulcinea, CIRC, Microsoft Academic, Indices CSIC y Cabells' Journal Whitelist

# 10. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

## INFORMAZIO SISTEMAK

2018an Elkargoaren ezaugarrien azterketa eta azterketa funtzionala burutu da, Gescol kudeaketa sistema berriaren ezarpenerako.




Kudeaketa sistema horren barruko ikus-onespenen moduluaren itxura.

## WEBGUNEA

Elkargoak on-line eskaintzen ditu bere elkargokideek aurrez aurre balia ditzaketen zerbitzu ia guztiak. Horrela ingeniari guztiek daukate zerbitzu hauetarako sarbidea: On-line elkargokidetzea, Ikus-onespen elektronikoa eta bestelako tramitazioak, Ikastaro eta Hitzaldietarako Izen ematea, On-line Denda...

Era berean, webgunea etengabe eguneratzen ari da, elkargokideei intereseko informazioa emateko.

Estatistikak

| | Bisitak | Ikusitako orriak | Batez besteko denbora |
|---|---|---|---|
| **2014** | 55.366 | 248.417 | 3,54 min. |
| **2015** | 76.115 | 282.926 | 3,72 min. |
| **2016** | 83.271 | 322.104 | 2,41 min. |
| **2017** | 80.451 | 316.242 | 2,37 min. |
| **2018** | 81.734 | 301.041 | 2,28 min. |

## BULETINAK ETA ALBISTEAK

2018an **129 albiste** argitaratu dira guztira, eta **46 buletinen** bidez eta albiste garrantzitsuenetarako **15 jakinarazpen** espezifikoren bidez helarazi dira.

Era berean, **Enplegu Buletinak** ere egiten dira, zerbitzu horretan izena ematen duten elkargokideei bereziki zuzenduak.

## SARE SOZIALAK

Elkargoa **LinkedIn eta Facebook** sare sozialetan dago. Bertan, gure berri eta jarduerarik garrantzitsuenak eta interesgarrienak helarazten dizkiegu elkargokideei eta gure jarraitzaileak diren eta horietan parte hartzen duten profesionalei.

Beste sare sozial batzuetan presentzia areagotzeko moduak lantzen ari gara, eta BIIEOk **Twitter eta Instagrameko profilak dauzka urte amaieratik.**

2018ko amaieran guztira **7.744 jarraitzailek** gure jarduerei jarraitzen zieten sareen bitartez.

# 11. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK

- **Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia eta Espainiako Ingeniari Industrialen Elkarteen Federazioa.**

  Nazio mailan integratuta gauden erakundeak dira.

- **Eusko Jaurlaritza:**
  - **Industria Segurtasuneko Kontseilua,** BIIEOren Zuzendaritzak Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Kontseiluaren ordezkaritza dauka**.**
  - **Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua,** 2016an sortutakoa, gure BGAEko presidentea kidea da, Federazioaren erakundeen ordezkaritzan.
  - **Ingurumen Saila eta Ihobe:**
    - **Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen** Kudeaketako Azken Txostenen Egiaztapenerako Arauen aplikazioa, 112/2012 Dekretuaren arabera.
- **Bilboko Udala, Hiri Kontseilu Zibikoan parte hartuz.**
- **Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola:**
  - Bilboko IGETk antolatutako Enplegu Jardunaldietan parte hartzea.
- **Deustuko Ingeniaritza Fakultatea:**
  - Ibilbide Profesionalaren Planari, Ingeniaritzako Lanbideari eta Elkargoaren Antolakuntzari buruzko Aurkezpen Jardunaldia.
  - Lankidetza Industria Antolakuntzako Masterrean, Proiektuen Kudeaketari eta Akreditazioen Sistemari buruzko klase magistral batekin.
- **Bilbao Metropoli 30, BasquePro ekimenaren barnean.**
- **Ingeniarien Eskolaren Fundazioarekin**, jarduna 1998an hasi zuena, bere Patronatuan parte hartuz.
- **Tecnalia Ziurtagiria,** Eraikuntzako Produktuak Egiaztatzeko Batzordeko kide modura**.**
- **Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberarekin**, bere jarduеretan, Arbitraje auzitegietan eta enpresen arteko bitartekaritza prozeduretan lagunduz.

# I ERANSKINA – PRESTAKUNTZA EKINTZEN ZERRENDA

| Arlo Teknologikoko ikastaroak | Arloa | Orduak | Izen-ematea | Balioespena |
|---|---|---|---|---|
| PMP® / CAPM® ZIURTAGIRIA JASOTZEKO PRESTAKUNTZA | Gaitasun profesionalak | 40 | 25 | 8,4 |
| HODI SISTEMEN DISEINU ETA KALKULUAN ADITUAK. Karga galera eta solairuko diseinua. | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 9 | 8,7 |
| Leherketa atmosferan industria instalazioak eta segurtasuna (ATEX) | Industria Segurtasuna | 24 | 20 | 8,3 |
| Industria proiektuen hastapenak | Prozesuen Ingeniaritza | 16 | 0 | - |
| Azterketa Elektriko Iragankorrak Parke Eoliko (Onshore / Offshore) eta Transmisio / Banaketa sareak | Ingeniaritza elektrikoa / energetikoa | 8 | 29 | 8,7 |
| Kudeaketa produktiboa Lean eta Kanbanekin | Produkzio eta fabrikazio industriala | 16 | 17 | 9,0 |
| TRIZ sisteman oinarritutako Berrikuntza Sistematikoa Ingeniaritza eta Teknologiarako (Oinarrizko TRIZ maila) | Gaitasun profesionalak | 24 | 1 | - |
| Material Konposatuetako Teknologia eta Diseinuen hastapena | Ingeniaritza Mekanikoa | 14 | 9 | 8,8 |
| ASME VIII – Presio bidezko ontziak | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 14 | 9,10 |
| HODI SISTEMEN DISEINU ETA KALKULUAN ADITUAK. ASME B31 Hodien kalkulua: Lodierak eta malgutasuna | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 17 | 8,8 |
| HODI SISTEMEN DISEINU ETA KALKULUAN ADITUAK. Hodi sistemetarako euskarriak | Ingeniaritza Mekanikoa | 24 | 8 | 8,3 |
| Materialen, Osagaien eta Ekipoen Ziurtagiriak | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | 4 | 7,7 |
| SPKL berriaren nobedade nagusiak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Adjudikazio Prozedura | Plangintza eta Kudeaketa | 12 | 13 | 8,8 |
| SEGURTASUN FUNTZIONALA: SIL esleipena eta egiaztapena | Prozesuen Ingeniaritza | 24 | 17 | 9,0 |
| Azterketa Elektriko Iragankorrak Parke Eoliko (Onshore / Offshore) eta Transmisio / Banaketa sareak (2. Edizioa) | Ingeniaritza elektrikoa / energetikoa | 8 | 10 | 8,7 |
| Lurreko hartuneen neurriak | Ingeniaritza Mekanikoa | 12 | 10 | 8,8 |
| Lankidetza eta produktibitatea 0365 konponbideekin | Plangintza eta Kudeaketa | 4 | 5 | 8,2 |
| Produktibitatea eta lankidetza: One note 2016 | Plangintza eta Kudeaketa | 4 | 15 | 8,3 |
| Proiektuen kudeaketa arina (Scrum) | Gaitasun profesionalak | 12 | 15 | 8,5 |
| Denboraren kudeaketa eraginkorra | Gaitasun profesionalak | 16 | 1 | - |

| Arlo Teknologikoko ikastaroak | Arloa | Orduak | Izen-ematea | Balioespena |
|---|---|---|---|---|
| Bateragarritasun elektromagnetikoa. 2014/30/UE Zuzentarau berria | Industria Segurtasuna | 8 | 10 | 8,4 |
| Malgutasunaren azterketa CAEPIPErekin | Ingeniaritza Mekanikoa | 32 | 5 | |
| RAMS diseinu eta kudeaketa teknikei buruzko oinarriak | Industria Segurtasuna | 8 | 8 | 8,7 |
| KARRERA PROFESIONALA GARATZEKO TRESNAK. Karrera pertsonalaren enfokea | Gaitasun profesionalak | 8 | 3 | - |
| KARRERA PROFESIONALA GARATZEKO TRESNAK. Aldaketetara egokitzea. | Gaitasun profesionalak | 8 | 0 | - |
| KARRERA PROFESIONALA GARATZEKO TRESNAK. Marka pertsonalaren garapena | Gaitasun profesionalak | 8 | 1 | - |
| Fakturazio elektriko optimoa. Benetako 40 eredu | Ingeniaritza elektrikoa / energetikoa | 20 | 2 | - |
| Mentoring teknikaren eraginkortasuna hobetzeko prestakuntza, mentoreentzat | Gaitasun profesionalak | 10 | 29 | 8,9 |
| Lurreko hartuneen neurriak | Ingeniaritza Elektrikoa energetikoa | 12 | 13 | 8,0 |
| Hidrogenoa eta Erregai Pilak | Energia eta Ingurumena | 4 | 7 | 8,0 |
| Zuzendaritza interpretazioa eta presio bidezko ontzien araudia | Ingeniaritza Mekanikoa | 16 | - | - |

| Hitzaldiak eta Jardunaldiak | Laguntzaileak |
|---|---|
| Zikloa: TOPAKETA TEKNOLOGIKOAK BIIEO: Industria 4.0: teoriatik errealitatera | TECNALIA |
| Zikloa TOPAKETA TEKNOLOGIKOAK BIIEO. Fabrikazio Aurreratuaren estrategia. Basque Industry 4.0 | TECNALIA |
| Zikloa: TOPAKETA TEKNOLOGIKOAK BIIEO: 4.0 industriaren erronkak: Konputazio bisuala | ONDOKOA |
| Hitzaldia: Naturaren oinarrizko lau interakzioak | EHU / UPV |
| Hitzaldia: Ingeniariaren Erantzukizun Zibil Profesionala eta Elkargo Aseguru Kolektiboa | MARSCH |
| Hitzaldia: Bioingeniaritza Do It Yourself Biology / Biologia zuk zeuk egin mugimenduaren barruan | SONIC BEER |
| Hitzaldia: Gobernu Korporatibo ona ETEan: Onurak eta aplikazio praktikoa | ADMINISTRAZIO KONTSEILARIEN INSTITUTUA |
| Hitzaldia: Compliance Penal. Ingeniarientzako sarrera | CARLOS OLABE |

| Hitzaldiak eta Jardunaldiak | Laguntzaileak |
|---|---|
| Hitzaldia: Re-think! Turbulentziak, Zisne beltzak, Aldaketa eta Disrupzioa | DEUSTO BUSSINES SCHOOL |
| Hitzaldia: Bilboko Portuko XXI. mendeko erronkak | PORTU-AGINTARITZA |
| Hitzaldia: Energibasque: Estrategia teknologikoa eta industria-garapenekoa. RIS3 Euskadi Energia arloaren zabalkundea. | EUSKADIKO ENERGIA KLUSTERRA |
| Zikloa TOPAKETA TEKNOLOGIKOAK BIIEO. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza arloko Euskadi 2020 Plana: Plangintza Estrategikoaren kasua. | SPRI |
| Zibersegurtasunari buruzko Konferentzia | - |
| Hitzaldia: Berpiztu. Innobasque 2020. Berrikuntza Euskadin | INNOBASQUE |
| Jardunaldia: Negozioen internazionalizazioa. oztopo teknikoak, komertzialak eta kulturalak | HOFSTEDE INSIGHTS |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
|---|---|
| On-line ikastaroa: Industria Eraikinetan Suteen kontrako Babes-instalazioen Diseinu, Mantentze eta Kudeaketan aditua | CGCOII |
| Jardunaldia: Solairuko kapturaren planifikazioa eta automatizazioa | EQ SYSTEM PRODUCTIVIDAD |
| ISA Bilera Teknikoa: Segurtasun sistema instrumentatuetako balbulak (SIS) | ISA |
| Gecemat Tailerra. KOMUNIKA-AKZIOAREN ARRAKASTA | GECEMAT |
| On-line ikastaroa: Industria eraikuntza berezien zimendatzeen diseinu eta exekuzioa. | CGCOII |
| On-line ikastaroa: 4.0 industriaren inguruko hastapenak eta negozio aukerak | CGCOII |
| On-line ikastaroa: Eraikuntza obretako segurtasun eta osasun arloko koordinazioan aditua | CGCOII |
| RIPCI jardunaldia: Araudi berriaren zerbitzura dauden berritasun teknologikoak | EJ / GV |
| LEAN WORKSHOPS: Lean Manufacturing Ziurtagiria / Lean Healthcare Ziurtagiria / Lean Office Ziurtagiria | Lean Institutua |
| Improva jardunaldia | IKN SENIOR |
| On-line ikastaroa: Industria eraikinen egitura metalikoen diseinu eta exekuzioan aditua | CGCOII |
| On-line ikastaroa: Instalazio elektriko industrialen diseinu, mantenu eta kudeaketan aditua (2. Edizioa) | CGCOII |
| Ikastaroa: COMPLIANCE PENAL S/UNE 19601 KUDEAKETA SISTEMA EZARTZEA | CARLOS OLABE |
| On-line ikastaroa: Fabrikazio gehigarria eta 3D eskanerra 4.0 Industrian. | CGCOII |
| ISO 45001 eta barne aholkulariaren 2018ko ikastaroa: laneko osasun eta segurtasunaren kudeaketa sistemak | SÁNCHEZ TOLEDO ASOCIADOS |

| Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak | Erakundea |
| --- | --- |
| On-line ikastaroa: Aire Konprimatuko Instalazioen Diseinu, Mantenimendu eta Kudeaketan Aditua | CGCOII |
| Industria eraikuntzetarako ormigoizko prefabrikatuen diseinu eta exekuzioari buruzko online ikastaroa | CGCOII |
| Lizitazio publikoko prozesuetako BIM metodologiaren ezaugarriei buruzko informazio jardunaldia | SGS TECNOS |
| Automatizazio Industrialari buruzko Campusa | OPERTEK |
| Mantentze-arloko Ingeniaritzako masterra 2018-2019 (TÜV SÜD Iberia) | TUV SUD |
| Ingeniarientzako Big data | PFK ATTEST |
| Mantentze-lanen arloko adimena eta berrikuntza | TUV SUD |
| On-line ikastaroa: Industria eraikinen zolata diseinu eta exekuzioan aditua | CGCOII |
| On-line ikastaroa: Aireztatze eta Filtrazio Instalazioen Diseinu, Mantenimendu eta Kudeaketan Aditua | CGCOII |
| Industria lantegietako biltegien eta instalazio logistikoen diseinu, mantenu eta kudeaketan aditua (2. Edizioa) | CGCOII |
| 4.0 Industriako Ingeniaritza eta Kudeaketa Aurreratua | EUSKALIT |
| Industria operazioen zuzendaritza ekonomikoko adituaren online ikastaroa. | CGCOII |
| IESE Konferentzia: Espainiako egoera ekonomikoa: Argitzeko zenbaki handiak. Mitoak eta datuak. | CGCOII |

## II ERANSKINA – KULTURA ETA GIZARTE EKINTZAKO XEHETASUNA

| BIZKAIKO INGENIARIEN MUSIKA ELKARTEA |
| --- |
| ✓ Bizkaiko Abesbatzen XLV. Astearen barruan, urtarrilaren 29an, Begoñako Andre Mariaren Basilikan. |
| ✓ EHUko Ingeniari graduatuei Diploma banaketa, martxoaren 19an, Euskalduna Jauregian. |
| ✓ Zendutako kideen aldeko Ingeniarien Meza, maiatzaren 28an, San Jose de la Montaña Elizan (Agustindarrak). |
| ✓ Kontzertua Coímbran, bertako Don Pedro de Cristo koruarekin, urriaren 26an. Jende asko bertaratu zen entzutera. |
| ✓ VI. Kontzertu Sakroa, Portugaleteko Santa Maria Abesbatzarekin batera, martxoaren 24an. |
| ✓ Fair Saturday Kontzertua, Bilboko Arte Berreginen Museoan, azaroaren 24an. |
| ✓ Gabonetako kontzertua, Karmengo Andre Marian (Indautxu), abenduaren 14an |